

AP-3.HE / 1. eredua

- 1.- *Bi anaiak norgehiagoka ibili ziren aitaren herentzia lortzearren. Zein da azpimarratutakoaren BALIOKIDEA?*
- a) Begiz jota.
 - b) Elkarren lehian.
 - c) Larrugorrian.
 - d) Gorriak ikusita.
- 2.- *Koadro koloretsu hauek eginak dira.*
- a) pintore ezezagunengandik
 - b) pintore ezezagunek
 - c) pintore ezezagunengatik
 - d) pintore ezezagunez
- 3.- *Komunikabideei buruzko jardunaldiak egingo dira.*
- a) azaroak 11an
 - b) azaroaren 11n
 - c) azaroaren 11ean
 - d) azaroak 11
- 4.- *Eman segida hitz zerrenda honi: eskutitz, txosten, jakinarazpen,*
- a) ordezkapen.
 - b) ezbai.
 - c) egiaztagiri.
 - d) antolaketa.
- 5.- *Gogoko lekuan Nola amaitzen da atsotitz hori?*
- a) gaua moztu eta eguna hazi.
 - b) aldaparik ez.
 - c) erdiak ustel.
 - d) hurbildu eta lau.
- 6.- *Zein dago ONDO?*
- a) Bulegoaren lankideekin oso ondo konpontzen naiz.
 - b) Interneteko eragina handia da gazteengan.
 - c) Askotan, lantokiaren langileek ez dute harremanik euren artean.
 - d) Udaleko idazkariak ez dit inongo azalpenik eman.

- 7.- Hitz zerrenda hauetako batean hitz bat LEKUZ KANPO dago. Zeinetan?
- a) Leka, aza, porrua, azalorea.
 - b) Dilistak, indabak, babak, ilarrak.
 - c) Txerrikia, ardikia, behikia, bikia.
 - d) Esnea, gurina, gatzatua, jogurta.
- 8.- *Umeak etorri ziren guregana atarian gizontzar hura ikusi zutenean.*
- a) aho batez
 - b) gainezka
 - c) ziztu bizian
 - d) ahuspez
- 9.- Zein dago ONDO?
- a) Maite, gurekin etortzen zara ala hemen gelditzen zara?
 - b) Mesedez, emango dizkidazu zure helbidea eta telefono zenbakia?
 - c) Bukatzen al duzue? Gaurko da!
 - d) Zer, loteria tokatuko?
- 10.- *Zortzi eta laurdenak dira. Ordu laurden barru hasiko da mintegia. Beraz,.....*
- a) Zortzi ta erditan.
 - b) Zortziak eta erdian.
 - c) Zortzi eta erdietan.
 - d) Zortziak ta erditan.
- 11.- *Gure iloba ez da gai guztiak orri horretan sartzeko.*
- a) isurketa
 - b) leherketa
 - c) eragiketa
 - d) beroketa
- 12.- Zein esalditan dago ortografi akatsen bat?
- a) Gaurko hizlariak idatzi duen artikuluak horixe dio gutxi gorabehera.
 - b) lazko martxoan guztiz kaskatuta zeunden lanagatik.
 - c) Igeltseroa eta arotza zazpitan etortzekotan geratu dira.
 - d) Ingelesez oso ondo mintzatzen da, baina frantsesez gaizki.

13.- *Gure ordezkaria ikusten duzunean, eman nire partetik.*

- a) bihotzekoak
- b) eskumuinak
- c) agurrak
- d) oroimenak

14.- *Maiteren sailean langileen arteko arazoak daude. «En nuestra sección, en cambio, se dan otros problemas».*

- a) Gure sailean, aldiz, beste arazoak daude.
- b) Gure sailean, aldiz, besteak dira arazoak.
- c) Gure sailean, aldiz, batzuk dira arazoak.
- d) Gure sailean, aldiz, beste arazo batzuk daude.

15.- Zein dago ONDO?

- a) Zein erabakiak hartu zituzten bileran?
- b) Edozein gaiari buruz hitz egiteko prest nago.
- c) Zenbait gertakizun kontrolaezinak dira.
- d) Azalpena batean ez nuen erdirik ere ulertu.

16.- Bapo gosaltzeko, tamainan bazkaltzeko eta gutxi afaltzeko aholkatzen dute medikuek. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?

- a) Janari freskoak gosaltzeko.
- b) Oso ongi gosaltzeko.
- c) Neurrian gosaltzeko.
- d) Esnekiak gosaltzeko.

17.- *Zuk ekarri ez bazenu, geuk ekar?*

- a) zitezkeen
- b) genezakeen
- c) gintezkeen
- d) genukeen

18.- *Trafikoko iragarki beldurgarriak ikusiagatik, istripuen kopurua ez da gehiegi aldatuko. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*

- a) Trafikoko iragarki beldurgarriak ikustekotan, istripuen kopurua ez da asko aldatuko.
- b) Istripuen kopurua ez da gehiegi aldatuko trafikoko iragarki beldurgarriak ikusterakoan.
- c) Istripuen kopurua ez da gehiegi aldatuko trafikoko iragarki beldurgarriak ikustearren.
- d) Trafikoko iragarki beldurgarriak ikusten badira ere, istripuen kopurua ez da gehiegi aldatuko.

19.- *Nire erlojua lankidearena baino*

- a) lau minutu atzean dabil.
- b) lau minutu atzera dabil.
- c) lau minutu atzerago dabil.
- d) lau minutu atzetik dabil.

20.- *Zer egiten da zerbait onartzeko edo gaitzesteko sinadura ezartzen denean?*

- a) Saritu.
- b) Txalotu.
- c) Aipatu.
- d) Izenpetu.

21.- *Zein esalditan dago ondo erabilia estu eta larri esamoldea?*

- a) Bukatu lan horiek estu eta larri!
- b) Estu eta larri geratzen zitzaizkion praka berriak.
- c) Medikiak estu eta larri ibili ziren mutilaren bizia salbatzeko.
- d) Estu eta larri zebilen berria herrian zehar.

22.- *Otsailean lan asko izaten dugu. Orduantxe hasten da,, diru-laguntzak eskatzeko epea.*

- a) hala ere
- b) hain zuzen
- c) behin batean
- d) dena dela

23.- Nola amaitzen da esaera zahar hau: *Geroa,*

- a) ez da errenta.
- b) alferraren leloa.
- c) askoren hondamendia.
- d) hanka motza da.

24.- *Berehala diogu ez dela herrikoa.*

- a) antolatu
- b) antzeman
- c) aztertu
- d) baliatu

25.- Zein da ZUZENA?

- a) Debekatuta dago gune honetan aparkatzea, taxiak ezetz.
- b) Debekatuta dago gune honetan aparkatzea, taxiak ez ezik
- c) Debekatuta dago gune honetan aparkatzea, taxiak izan ezik.
- d) Debekatuta dago gune honetan aparkatzea, taxiak ezen.

26.- *Oporretan Irlandan izan ginen, Keny herrixa batean hain zuzen ere.*

- a) dioen
- b) datzan
- c) deritzan
- d) dirauen

27.- *Zuen abokatuak ganbara pipiak jota du. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*

- a) Zuen abokatuak animaliak oso gustuko ditu.
- b) Zuen abokatua guztiz etsita dago.
- c) Zuen abokatua burutik eginda dago.
- d) Zuen abokatua ez da batere txukuna.

28.- *Nire bizilaguna oso urduri dago ebakuntza egin behar diotela esan ziotenetik. Zein da hitz horren SINONIMOA?*

- a) Goibel.
- b) Artega.
- c) Malgu.
- d) Tente.

29.- *Plan berriari erreklamazioak aurkezteko epea ixtear dago.*

Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

- a) Planaren berri eta erreklamazioak egiteko epea batera emango dira.
- b) Epea itxi egingo da plan berriari buruzko erreklamazioak egin ahal izateko.
- c) Plan berriari buruzko erreklamazioak egiteko epea laster amaituko da.
- d) Plan berriari erreklamazioak aurkezteko epea luzatzeko asmoa dute.

30.- Zein dago ONDO?

- a) Gurekin izan ditugu aldizkari bat hiru hizkuntzatan argitaratu dutenak.
- b) Gurekin izan dugu aldizkari bat hiru hizkuntzatan argitaratu dituztenak.
- c) Gurekin izan ditugu aldizkari bat hiru hizkuntzatan argitaratu dituztenak.
- d) Gurekin izan dugu aldizkari bat hiru hizkuntzatan argitaratu dutena.

31.- Nola irakurtzen da $36:2=18$?

- a) Hogeita hamasei bi zatituta igual hemezortzi.
- b) Hogeita hamasei bi zatituta berdin hemezortzi.
- c) Hogeita hamasei bi zatitan berdin hemezortzi.
- d) Hogeita hamasei zati bi berdin hemezortzi.

32.- *Zer, etxetik denak ondo? Zer erantzungo zenuke?*

- a) Ustekabean!
- b) Baietz, horrela daude!
- c) Hantxe ondo daudela!
- d) Hainbestean!

33.- Zein da « jakinarazi » aditzaren SINONIMOA?

- a) Burutu.
- b) Aditzera eman.
- c) Igorri.
- d) Mintzatu.

34.- *Gure inguruan horrelako esaerak «se dicen continuamente».*

- a) bete-betea esaten dira.
- b) hitzetik hortzera esaten dira.
- c) amen batean esaten dira.
- d) jakinaren gainean esaten dira.

- 35.- *Hitz egin genuen bezala moldatuko dugu proiektua.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?
- a) Gure aldetik moldatuta dago proiektua.
 - b) Hitz egin genuenaren arabera moldatuko dugu proiektua.
 - c) Hitz egindakoa moldatuko omen dugulakoan gaude.
 - d) Hitz egin ordez moldatuko dugu proiektua.
- 36.- *Ez dut amorerik eman, eta laguna haserretu egin zait.*
Zer esan nahi du azpimarratutakoak?
- a) Ez dakidala maitasuna erakusten.
 - b) Ez naizela bere nahietara makurtu.
 - c) Ez dudala ongi tratatu.
 - d) Ez dudala barkatu.
- 37.- *Zure senargaiak zuen ezkontza egunean bizpahiru ordu lanera joatea erabaki du.*
Zer esango zenioke zure harridura adierazteko?
- a) Horixe baietz!
 - b) Ondo esan beharko!
 - c) Bururatzea ere!
 - d) Une larri honetan zurekin nago!
- 38.- *Hizkuntza bat ikasten ari garenean normala da arazotxoak aurkitzea eta arazotxo horiei bueltak ematea; hori,, ez dugu denok modu berean egiten.*
- a) bide batez
 - b) ordea
 - c) bien bitartean
 - d) bestela
- 39.- *Termometroak behera egin ahala, gaixotasunek gora egiten dutelako ustea dugu.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?
- a) Gaixotasunei buruz dugun usteak badu zerikusia termometroaren erabilerarekin.
 - b) Termometroak behera egin beharrean gora egiten duenean, gaixotasunek ere gora egiten dutela uste dugu.
 - c) Uste dugu gaixotasun kopuruaren gorakada bat datorrela termometroaren beherakadarekin.
 - d) Termometroen kopuruak behera egiten badute ere, gaixotasunek gora egiten dutela frogatuta dago.

40.- *Gidabaimena berriztatzeko nire helbide berria frogatu behar dut, eta horretarako bat eskatu behar dut udaletxean.*

- a) gutun
- b) eskabide
- c) txosten
- d) agiri

41.- *Idazleak saria jasotzeari uko egin zion. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?*

- a) Borondatez ezezkoa eman zuela.
- b) Pozik onartu zuela.
- c) Lotsa eman ziola.
- d) Behartuta hartu zuela.

42.- *Kostaldeko herri guztiek ezaugarri antzekoak dituzte., bakoitzak berezko beste batzuk izaten ditu.*

- a) Honela
- b) Hala ere
- c) Hortaz
- d) Izan ere

43.- *Hartu ditugun neurriei esker, espero genituen emaitza onak lortu ditugu. Neurriak, egia esateko, oso izan dira.*

- a) eraginkorrak
- b) berekoiak
- c) adimentsuak
- d) ustelkorrak

44.- Zein dago ONDO?

- a) Arlo hau bezala besteak ere gauza bera gertatzen da.
- b) Arlo hauetan bezala besteak ere gauza bera gertatzen da.
- c) Arlo honetan bezala besteetan ere gauza bera gertatzen da.
- d) Arlo hauek bezala besteetan ere gauza bera gertatzen da.

45.- *Zenbat dira 43 euro pezetatan?*

- a) Zazpi mila ehunda berrogeita hamabost.
- b) Zazpi mila ehun eta berrogeita hamabost.
- c) Zazpi mila ehun eta berrogei eta hamabost.
- d) Zazpi mila eta ehun eta berrogei eta hamabost.

AP-3.HE / 1. eredua

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

| | | | | | | | | | |
|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 1. | B | 2. | B | 3. | B | 4. | C | 5. | B |
| 6. | D | 7. | C | 8. | C | 9. | B | 10. | C |
| 11. | C | 12. | B | 13. | B | 14. | D | 15. | C |
| 16. | B | 17. | B | 18. | D | 19. | C | 20. | D |
| 21. | C | 22. | B | 23. | B | 24. | B | 25. | C |
| 26. | C | 27. | C | 28. | B | 29. | C | 30. | A |
| 31. | D | 32. | D | 33. | B | 34. | B | 35. | B |
| 36. | B | 37. | C | 38. | B | 39. | C | 40. | D |
| 41. | A | 42. | B | 43. | A | 44. | C | 45. | B |